

# EKINTZA SINDIKALEKO TXOSTENA

2017/2018 ikasturteko balantzea

2018ko uztaila



[www.lab.eus](http://www.lab.eus)



## AURKIBIDEA

Sarrera .....	5
1. Eraginkortasuna irabazteko, ekintza sindikala berritzea .....	5
1.1. Lantokietako borrokak areagotzeko apustua .....	5
1.2. Negoziazio kolektibotik harago, prekarietatearen kontrako borrokak pizten.....	6
1.3. Langile kolektibo berrientzako sindikalismoa .....	7
1.4. Ekintza sindikal berria nola eta zeren arabera landu .....	7
1.5. Borroka moldeak .....	8
1.6. Aliantzak .....	8
2. Konfrontazio fasea enpresa zein sektoreetan .....	9
2.1. Sektore mailan egin ditugun eta egiten ari garen borrokak .....	9
2.2. Enpresa mailan egin ditugun eta egiten ari garen borrokak .....	11
3. Lan munduko diskriminazioen kontrako borrokak .....	14
3.1. Emakumeek jasaten duten diskriminazioaren kontra .....	14
3.2. LGTBI+ fobiaren kontra .....	15
4. Lan osasuna .....	16
4.1. Mutualitateen dinamikak .....	16
4.2. Emakumeon osasunaren eguna .....	16
5. Euskara .....	16
6. Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren aldeko borroka .....	16
6.1. Lanbide Arteko Akordioa .....	17
6.2. M30, Estatalizazioaren kontrako mobilizazioa eguna .....	17
6.3. "Alarma soziala", Macron legearen kontrako dinamika .....	17
6.4. Nafarroako kontratazio legea .....	18
7. Ondorioak .....	18



## Sarrera

Kurtso honetako LABen erronka nagusia izan da lantokietako borroka eta grebak areagotzea, patronala eta botere politikoekiko gure indar korrelazioa aldatzeko. Helburua argia izan da: langileok pairatzen ari garen pobretze eta prekarizazioari aurre egin eta prozesu horrekin amaitzea.

**Borroken eta greben berpiztea lortu dugu, urrats garrantzitsua eman da.** Ekintza sindikala berritu dugu eraginkortasuna irabazteko, eta eragina izan du ondoko esparruetan:

## 1. Eraginkortasuna irabazteko, ekintza sindikala berritzea

### 1.1. Lantokietako borroka areagotzeko apustua

Sektore mailan dagoen indar korrelazioa ikusita eta eremu honetan egoera mugitzeko dauden mugak aintzat hartuta, lan zentroetan borroka hauspotzearen aldeko apustua egin dugu, lantoki bakoitzeko egoera eta aukeretatik abiatuta. Helburua da lantoki bakoitzean ematen ari den errealitateari erantzuteaz gain, borroka horien bidez sektore eremuan eragitea, indarrak langileen aldera ekarri.

Sektoreko borroka ugari sustatu dugu, eta hainbat hitzarmen berreskuratzea lortu da, LABek defendatzen dituen edukiekin, besteak beste:

Garbiketa	Irakaskuntza publikoa
Gasolindegia	Kiroldegia
Eraikuntza	Grafikagintza
Kale garbiketa	Papergintza
Udal eta foru administrazioa	Ostatuak

Negoiazio kolektibo sektorialaren berpizte bat eman da, baina eremu honetan lortutako edukiek lantokietan ematen diren prekaritate egoera guztiei erantzun ezinik jarraitzen dute. Sektoreko hitzarmenekin langile guztientzat gutxieneko edukiak ezartzea lortzen ari gara, baina mugapenak ditu prekaritate iturri garrantzitsuei aurre egiteko. Beharrezkoa da lantokietan ere prekaritateari aurre egiten dioten akordioak lortzea, eta hauek ahalbidetzeko borroka martxan jartzea.

## 1.2. Negoziazio kolektibotik harago, prekaritatearen kontrako borroka pizten

Negoiazio kolektiboak bere pisua izaten jarraitzen badu ere, haren mugak gairatzeko borroka asko aktibatu ditugu, lan zentro bakoitzean ematen ari ziren egoerei aurre egiteko.

- **Estatalizazioaren** kontra. Borroka ugari ireki dira eta emaitzak lortu ditugu. Adibidez:

Staples	Hitzarmeneko soldadari gehitzeko plusa
Transportes Alvarez / Azkar	Bertako negoziazio eremua ireki eta adostu Akordioa soldadari dagokionez
Carrefour Oiartzun	Bertako negoziazio eremua ireki eta lan baldintzak hobetu
Selekta	Bertako negoziazio eremua ireki

Eta beste batzuetan borrokan jarraitzen dugu, GS Hydron etab.

Horrez gain, prekaritatearen kontrako hainbat borroka egin dugu, baita emaitza onak lortu ere:

Artiach	Soldata eskala bikoitza kendu da
Larrungo tren	Soldaten hobekuntza
Ferros Michelin Gasteiz	Soldata ekiparatzeko akordioa
USN Volkswagen	Soldata igoera lineala, lanaldi murrizketa, Aldi-baterako Desgaitasunetan %100...
Asunción Klinika	Urratsak ekiparazioan eta enpresako lan hitzarmena berreskuratu da
Frutas Adarra	Igande eta jai egunetan jai
UTE Aubide	Soldata eskala bikoitza kendu eta postu estrukturalak ez azpikontratatzeko lortu da

Eta beste batzuetan borrokan jarraitzen dugu: Dia, Eustat etab.

Horrez gain, beste hainbat arlotan ere lorpen garrantzitsuak ditugu. Prekaritatearen kontra abiatu dugun borroka eta lortzen ari garen emaitzen erakusle dira adibideok:

Arlo publikoko azpikontrata. Lan baldintzak hobetzea	Nafarroako Kontratazio Legea. Azpikontratetako langileei aplikatu beharreko gutxieneko lan baldintzen arautzea
Euskara	-Gaska. 150 langilek euskara ikasiko dute enpresak ordainduta  -Larrungo tren. Plusa ordainduko da zerbitzua euskaraz emateagatik
Diskriminazioa	Kelvion. Kontratazioa Lanbidetik egin eta erdiak emakumeak izatea adostu da
Lan osasuna	Iruña Ferreteros. Kontingentzia arruntak gizarte segurantzara pasatu dira

### 1.3 Langile kolektibo berrientzako sindikalismoa

LABek erabaki du langile kolektibo berrietara heltzea (jarraian batzuk) eta ekintza sindikalerako eskaintza zehatza egitea, kolektibo horiek borrokara batzeko asmoarekin. Zentzu horretan esperientzia ugari izan dugu kurtso honetan.

**Lantokietan dauden langile kolektibo ezberdinak.** Azpikontratutako langileak, ABLE bidez kontratatuak, praktiketako langileak... lantokietako errealitatea gero eta anitzagoa da. LABeko kidegoaren artean badago enpresa ulertzeko eskema klasikoetatik harago begiratzeko joera, eta ikuspegi horren arabera borroka interesgarriak jarri dira martxan (Cemosa, klausula sozialak, Club Natación Nafarroa etab.)

Asmo berarekin, kolektibo anitz horiengana hurbiltzeko hiru ekimen espezifiko izan ditugu 2017/2018 kurtsoan: *Ekimen Ibilitaria*, *Ostiral Duinak* eta *Bizi Egunak*. Herri eta auzoetako egoera zehatzak eta prekaritatearen kontrako borroka desberdinak zabaltzeko baliagarriak suertatu dira eta harrera ona izan dute.

Izan dira beste dinamika batzuk gehiago zuzenduak prekaritatea pairatu bai baina antolatzeke eta erantzunak bideratzeko aukera gutxiago dituzten kolektiboek begirakoak, elkartasuna eta erantzuna ahalbidetzeko; **"Piztu alarma"** (Iruñerria) eta **"Alarma soziala"** (Ipar Euskal Herria) dinamikak, kasu.

Esperientzia guztiz interesgarriak izan dira horiek, interesgarria izan den moduan lan zentro arruntetan ez dauden kolektiboengana —etxeko langileak, autonomoak, sexu langileak, manteroak...— egindako hurbilketa, ekimen ezberdinen bidez.

Lan mundua aldatzen ari da, langileon baldintzak ere bai. Lana bere zentzu zabalenean ulertuta (produktiboa zein erreproduktiboa, eta langile kolektibo ezberdinak, anitzak), LAB sindikatuan ikuspuntua aldatzen ari gara, zabaltzen, eta zabalkuntza horretan sakontzen jarraituko dugu.

### 1.4. Ekintza sindikal berria nola eta zeren arabera landu

Ekintza sindikal berritua garatzeko LABeko militantziari erraztasunak emateko helburuz *"Ekintza Sindikaleko Gida"* landu dugu. Prekaritatearen kontrako irizpideak eta irtenbideak jasotzen ditu, ekintza sindikal berritua garatzeko pausoak, irizpideak proposatzen dira.

Gida erreferentziazkoa da prekaritatearen kontra lan zentroetan ematen ari diren egoera gehienetarako. Aurkezpen mintegiak egin genituen eskualde guztietan eta orain, gida ezagutarazteaz gain, aipatu erreferentzialtasuna lantzea dagokigu.

Ekintza sindikal berritua martxan jartzeko sindikatuan ditugun tresnak erabiltzen ikasteko **tailerrak** egin dira kurtso honetan, Hego Euskal Herrian. Kasu praktikoak landuz, benetako egoerei ekintza sindikal berrituarekin erantzun ahal izatea bilatu da. Mintegi horiek baliagarriak izan dira, aldaketa bidean, lehengo inertzia ugari atzean uzten hasteko.

## 1.5. Borroka moldeak

Ekintza sindikal berrituak borroka molde berriak dakartza. Mobilizazio diseinuetan, oraindik orain, ohiko moldeen pisua agerikoa bada ere, izan dira proposamen berri eta berritzaileak eta etorkizunerako saiakera oso positiboak.

Ohiko moldeei dagokionez, oso positiboki baloratzen dugu greben presentzia, martxan jarri ditugun borroka gehienetan presentzia izan du, baita eragina ere, lortu ditugun emaitzetan.

## 1.6. Aliantzak

Arlo desberdinekin jorratu ditugu aliantzak. Sindikalgintzan batez ere ELArekin. Kurtso hasieran dinamika bateratu zabalak izan genituen federazioen lidergoarekin (zerbitzu publikoak eta zerbitzu pribatuak), eta industrian saiakera egon zen horren inguruko akordioak lortzeko.

Kurtso erdialdetik aurrera, helburuak eta joko arauak adosteko zailtasunak areagotu ziren, eta ordutik hona, tokian toki ari gara elkarlana burutzen, akordio orokorrik gabe.

Ernairekin aliantza sakondu egin dugu gazteak pairatzen ari diren prekarietateari aurre egiteko. Alde batetik, *"Gazteria, lana eta prekarietatea. Gazte prekarietatearen argazki bat eta borrokarako proposamena"* osatu da, eta bestetik, eta berau baliatuz, eskualdeka sortu diren gazteen prekarietataren kontrako taldeekin, ekimen desberdinak burutzea aurreikusten da.

Aurtengoa izan da mugimendu feministarekin dugun aliantzan sakontzeko urtea. Momentu askotan elkarlan estuan aritu gara. Martxoaren 8az gain, diskriminazio laborala salatzeko (esaterako, Texajax enpresa edo Iruñean, Palacion de Gendulain eta Castillo de Javier hotel-jatetxeetan), edota, Emakumeen Mundu Martxaren baitan, indarkeria sexista salatzeko.



## 2. Konfrontazio fasea enpresa zein sektoreetan

Lehen aipatu moduan, ixtear dugun kurtso honetako erronka nagusia aktibazioa eta borroka ugartzea zen, ekintza sindikal berritua martxan jarriz, betiko negoziazio kolektibotik harago joanez, eta lan zentroak hartuta borroka gune moduan, dituzten aukera eta egoerak kontutan hartuz eta baliatuz.

**Aktibazioan eta konfrontazioan sakontzea lortu dugu**, beste sindikatuekin elkarlanean nahiz bakarka. Geure ekimenez abian jarri ditugun borroketan grebak garrantzia izan du.

Indar korrelazioa aldatzea ekar dezakeen mugimendua somatzen da langileen artean, eta horrek patronalaren jarreran aldaketa txiki bat ekarri du. Horrela, negoziazio batzuk martxan jarri dira naiz eta edukietan zabaltasun asko ez izan.

### 2.1. Sektore mailan egin ditugun edo egiten ari garen borroka

(\*) F. Sektore feminizatua

Araba	(*)	Arrazoi nagusia	Borrokaen egoera	Grebaen presentzia
Kiroldegia		hitzarmena	Itxita	greba
Etxez etxeko Laguntza	F	hitzarmena	Irekita	greba
Esku hartze soziala		hitzarmena	Itxita	greba

Bizkaia	(*)	Arrazoi nagusia	Borrokaen egoera	Grebaen presentzia
Gasolindegia		hitzarmena	Itxita	
Garbiketa	F	hitzarmena	Itxita	
Bulegoak		hitzarmena	Irekita	greba
Metala		hitzarmena	Irekita	
Kontserbak	F	hitzarmena	Irekita	
Ardo eta likoreak		hitzarmena	Irekita	
Etxez etxeko laguntza	F	hitzarmena	Irekita	greba
Esku hartze soziala		hitzarmena	Irekita	lanuzteak
Zahar Egoitzak	F	Ratioak	Irekita	

<b>Gipuzkoa</b>	<b>(*)</b>	<b>Arrazoi nagusia</b>	<b>Borrokaren egoera</b>	<b>Grebaren presentzia</b>
Eraikuntza		hitzarmena	Itxita	Greba (deialdia)
Kale garbiketa		hitzarmena	Itxita	Greba (deialdia)
Ostatuak		hitzarena	Itxita	Greba (deialdia)
Oihalgintza	F	hitzarmena	Itxita	
Bidaiarien Garraioa		hitzarmena	Itxita	Greba (deialdia)
Zahar Egoitzak	F	Hitzarmena / aurrekontuak	Irekita	

<b>Nafarroa</b>	<b>(*)</b>	<b>Arrazoi nagusia</b>	<b>Borrokaren egoera</b>	<b>Grebaren presentzia</b>
Nekazaritza eta abeltzaintza		hitzarmena	Itxita	
Kontratazio Legea		prekarietatea	Itxita	Greba (deialdia)
Esku hartze soziala		hitzarmena	Itxita	
Kirol Kudeaketa		hitzarmena		Greba (deialdia)

<b>EAE</b>	<b>(*)</b>	<b>Arrazoi nagusia</b>	<b>Borrokaren egoera</b>	<b>Grebaren presentzia</b>
Irakaskuntza. Heziketa Berezia		hitzarmena	Itxita	Greba
Irakaskuntza. Sukalde eta Garbiketa	F	hitzarmena	Itxita	Greba
Irakaskuntza. Irakasleak		hitzarmena	Itxita	Greba
Irakaskuntza. Haur eskolak	F	hitzarmena	Itxita	Greba
Ikusentzunezkoen Akordio Markoa		Blindaje prekarietatea	- Itxita	
Anbulantziak		hitzarmena	Irekita	
Eustat	F	prekarietatea	Irekita	Greba
Lanbide		Zerb publi. eredu	Irekita	Greba
Zuzenean	F	kontziliazioa	Irekita	Ilanuzteak
Osakidetzako larrialdiak		kontratazioa	Irekita	
Udal eta Foru administrazioa		hitzarmena	Irekita	Greba

## 2.2. Enpresa mailan egin ditugun edo egiten ari garen borrokkak

Araba	(*)	Arrazoi nagusia	Borrokkaren egoera	Grebaren presentzia
Ferroser Michelin Gasteiz		prekarietatea	Itxita	
Lidl Audio	F	hitzarmena	Itxita	
Froneri		hitzarmena	Itxita	
Alestis		enplegua	Itxita	lanuzteak
BSH Gasteiz		enplegua	Itxita	lanuzteak
Tubos Reunidos		enplegua	Itxita	lanuzteak
Perfil en Frio		hitzarmena	Itxita	
Heraclio Founier		Hitzarmena + kaleratzea	Itxita	
Mercedes		diskriminazioa	Itxita	
Tubacex		hitzarmena	Itxita	lanuzteak
WEC		hitzarmena	Itxita	greba
Olazabal		hitzarmena	Irekita	greba
Gasteizko Udala		hitzarmena	Itxita	greba
APDEMA		hitzarmena	Itxita	greba
Olazabal y Uharte		hitzarmena	Itxita	greba

Bizkaia	(*)	Arrazoi nagusia	Borrokkaren egoera	Grebaren presentzia
Prod. Tubulares		enplegua	Itxita	greba
Vicinay		hitzarmena	Itxita	lanuzteak
GS Hydro		estatalizazioa	Irekita	greba
Dia	F	prekarietatea	Irekita	
Artiach		prekarietatea	Itxita	
Stapples		estatalizazioa	Itxita	
Kelvion		hitzarmena	Irekita	lanuzteak
Prácticos Santurtzi		hitzarmena	Itxita	
Foru Aldundiko garbiketa	F	hitzarmena	Irekita	lanuzteak
Gasca	F	euskera	Itxita	
H&M	F	enplegua	Itxita	greba
Guggenheim		enplegua	Itxita	
CEL		enplegua	Itxita	greba
Alesa		enplegua	Itxita	greba
Negarra		enplegua	Irekita	
Cemosa		enplegua	Itxita	greba
Rothenberger		hitzarmena	Itxita	lanuzteak
Cables y Alambres		L. osa. + jazarpena	Itxita	
UTE Aubide		Subrogazi. + diskri.	Itxita	
Arrotegi egoitza	F	prekarietatea	Irekita	lanuzteak

ST3 elkarte		enplegua	Itxita	greba
Loramendi Zaharren Egoitza	F	Murrizketak diskriminazioa	Itxita	
Aspace		hitzarmena	Itxita	
Algortako Gaztelekua		kaleratzea	Itxita	

<b>Gipuzkoa</b>	<b>(*)</b>	<b>Arrazoi nagusia</b>	<b>Borroka-egoera</b>	<b>Greba-egoera</b>
Carrefour Oiartzun	F	estatalizazioa	Itxita	greba
Alfa		enplegua	Itxita	greba
Asunción Klinika	F	hitzarmena	Itxita	greba
Frutas Adarra	F	Jai egunak	Itxita	
Gamesa Asteasu		kaleratzeak	Itxita	greba
Arcelor Bergara		enplegua	Itxita	
Fagor-Geyser		enplegua	Itxita	
Reiner		zigorrak	Itxita	
Michelin		kaleratzeak	Itxita	
Astilleros Valenciaga		hitzarmena	Itxita	lanuzteak
GRI		hitzarmena	Itxita	
Matia Fundazioa	F	hitzarmena	Itxita	
Pasaia-ko Zaharren egoitza	F	Soldatak	Itxita	
SAPA		hitzarmena	Itxita	lanuzteak
Sammic		hitzarmena	Irekita	lanuzteak
Industrias FER		hitzarmena	Irekita	Lanuzteak
Ferroser Michelin (Lasarte)		enplegua	Irekita	lanuzteak
Kelsen		prekariatatea	Itxita	lanuzteak
Fudike		hitzarmena	Irekita	greba
Arcelor Mittal Olaberria		hitzarmena	Irekita	greba
Rodisa		hitzarmena	Itxita	lanuzteak (deialdia)
Haizelur		hitzarmena	Itxita	lanuzteak (deialdia)
Roar		prekariatatea	Itxita	Lanuzteak
Elektra		paktoa	Itxita	
Geka		kaleraketak	Itxita	Lanuzteak
CAF		Ofentsiboan (legez kanpoko zesioa)		
UBIS		prekariatatea	Itxita	

<b>Nafarroa</b>	<b>(*)</b>	<b>Arrazoi nagusia</b>	<b>Borroka-egoera</b>	<b>Greba-egoera</b>
Selecta		estatalizazioa	Itxita	greba
Transportes Alvarez		estatalizazioa	Itxita	
Azkar		estatalizazioa	Itxita	

ISN-Volkswagen		prekarietatea	Itxita	greba
Bera Udala Garbiketa		errebetsioa	Itxita	
Iruña Ferreteros		lan osasuna	Itxita	
Club N. Pamplona		prekarietatea	Irekita	
Kayaba		kaleratzeak	Itxita	
Triman		enplegua	Itxita	
Siemens Gamesa		hitzarmena	Itxita	
Volkswagen		diskriminazioa	Itxita	lanuzteak
Amavir Betelu	F	prekarietatea	Irekita	greba
Sin Fronteras		jazarpena	Itxita	
Gurerak Enplegu Zentro Berezia		kaleratzeak	Irekita	
Elkarkide Enplegu Zentro Berezia		kaleratzeak	Irekita	
Padre Meni	F	hitzarmena	Irekita	
Xilema / ANNF		pleguak	Irekita	
Misericordia	F	hitzarmena	Irekita	greba
Tasubinsa Enplegu Zentro Berezia			Irekita	

<i>Ipar Euskal Herria</i>	(*)	Arrazoi nagusia	Borrokaren egoera	Grebaren presentzia
Larrun Trena		Prek.+eusk.+enple.	Irekita	greba
Epidaure		Prekarietatea	Itxita	greba

### 2017/2018 kurtsoa datuetan:

- ✓ 120 borroka piztu dira
- ✓ 64 borroketan greba erabili da. Bi borrokatik bat (%54) grebak lagundua izan da.
- ✓ 26 borroka lan zentru sektore feminizatuetoakoak dira. Borroken %22 eremu feminizatuetoakoak dira.
- ✓ 85 borroka itxita daude, emaitzekin. Borroken %71 positiboki ebatzi dira.
- ✓ 35 borroka (%29) irekita daude.
- ✓ Sektore mailako borroka 33 izan dira. Eremu feminizatuetoakoak 11 borroka. 15 borroka oraindik indarrean dira. Grebak lagunduta 20 borroka gauzatu dira.
- ✓ Enpresa mailako borroka 87 izan dira. Eremu feminizatuetoakoak 15 borroka. 20 borroka oraindik indarrean dira. Grebak lagunduta 44 borroka gauzatu dira.

### **3. Lan munduko diskriminazioen kontrako borroak**

#### **3.1. Emakumeak jasaten duten diskriminazioaren kontra**

##### **a) Martxoak 8**

Aurtengo Martxoaren 8an jauzi bat egin behar genuela erabaki genuen eta horrela izan da. Martxoaren 8ak garai berri batean kokatzen gaitu; bide luze, korapilatsu eta oso emankorraren emaitza da. Feminismoaren alde egitea posiblea eta beharrezkoa dela argi utzi dugu.

LABek grebarekin bat egitea posiblea izan da emakume feminista askok urteetan sindikatuan eta lan munduan egindako lanari esker eta sindikatuak hartutako erabakiei esker.

Lanuzteak, nahiz eta sektore guztietarako baliagarriak ez izan, lagungarriak izan dira eta balio izan dute emakumeak kalera irten ahal izateko. Deialdi ugari egin ziren eta horrek, emakumeei aukeratzeko aukera eman zien, kalera noiz eta nola atera aukera egin ahal izan zuten.

Lan/enplegu banaketa faltsua agerian utzi zuen grebak eta lan munduan emakumeok non eta nola gauden kokatu eta azalarazteko ere oso baliagarria izan da. Aldi berean, zaintza lanek emakumeen bizitzak nola baldintzatzen dituzten ikustarazteko oso egokia izan da. Kapitalismoaren aurkako aldarrikapenak sindikatuaren lan ildoekin bat zetozen erabat.

Martxoaren 8ak Mugimendu Feministarekiko aliantzetan sakontzen lagundu digu.

##### **b) Soldata arrakalaren kontrako dinamika**

Bi helburu nagusi zituen eta biak lortu ditugu: Martxoaren 8ko grebari arrazoiak gehitzea eta soldata arrakalaren auzia mahai gainean jartzea. Soldata arrakalari benetako dimentsio politikoa ematea lortu dugu. Erakunde ezberdinak interpelatu ditugu (Confebask, CEN, Eusko Jaurlaritza, Legebiltzarra,...) eta bertan beste eredu baterako trantsiziorako neurriak aurkeztu ditugu soldata arrakalaren atzean dagoen egoerarekin bukatzeko. Sindikatuaren baitan ere soldata arrakalaren inguruko ezagutzan eta lanean sakontzeko aukera izan da.

Hemendik aurrera irekitzen den lan ildo oso baliagarria izango da ekintza sindikala egiteko, soldata arrakala sistema kapitalistaren kontraesan gehienak islatzen dituen faktore baita. Hego Euskal Herriko 284 lantoki baino gehiagotan soldata arrakalaren inguruko eskaera bat sartu genuen, ikerketa bat egiteko eta zuzendu beharreko egoeren aurrean neurriak proposatzeko.

Jasotako erantzun eskasa egoeraren larritasunaren adierazle da eta enpresen aldetik dagoen interes falta handiaren erakusten digu. Beraz, lan handia egin behar dugu oraindik egoerari buelta emateko.

Soldata arrakalaren inguruan egindako lanketari dagokionez, ondorioen artean hauek nabarmendu ditzakegu:

- 250 langiletik gorako enpresa gehienetan ez da berdintasun planik egin.

- Beste hainbat sektoretan baino gehiago kobratzen den industrian ez dago ez neurririk ez asmorik emakumeen sarbidea ahalbidetzeko.
- Berdintasun planak ezarri diren enpresetan ez da aldaketa handirik egon. Planak ez dira ebaluatu, neurriak ez dira martxan jarri... beraz, berdintasun politikek porrot egin dute.
- Jasotako datuek erakusten digute lan munduan arrakalarekin bukatzetik edota horretarako neurriak hartzetik urrun gaudela, enpresen aldetik ez dago asmorik errealitate hori aztertzeko eta erakundeen aldetik ez dago borondaterik.
- Azken 20 urteotan, berdintasun politikek ez dute egoera irauli eta soldata arrakala kronikoa bilakatu da. Soldata arrakala sistema kapitalistaren tresna izanda, sistema bera aldatu gabe ez dago konponbide posiblerik.

### **c) Pikete feminista**

Pikete feminista, sexu-generoarekin lotura duten lan gatazkak azalarazteko, hauen salaketa publikoa egiteko, ekintza sindikalean praktika feminista txertatzeko eta emakume langile eta Mugimendu Feministaren arteko aliantzak gorpuzteko ekintza zuzena ahalbidetzeko sortutako tresna da.

Lan esparru formaletik urrun geratzen zaizkigun sektoreengana gerturatzeko eta hauen egoera saltzeko bitarteko bat da: etxeko langileak, merkataritza txikia, garbitzaileak, bakarrik lan egiten duten emakumeak... baita gatazkan diren enpresetan ekimen propioak egiteko ere. Aurten, eskualde batzuetan martxan jarri dugu eta praktika oso egokia izan da. Eztabaida irekita daukagu oraindik dinamizatzaile feministekin, piketeak eta emakumeen sareak eskualde guztietan sortzeko eta ondo definitzeko nola, noiz eta zertarako erabili.

## **3.2. LGTBI+ fobiaren kontra**

LGTBI+ fobia aurrean, pauso berri bat eman dugu, eta lantokietan sexu aniztasuna bermatzeko gida eta protokoloa berri dugu.

## 4. Lan Osasuna

### 4.1. Mutualitateen dinamikak

Kurtso honetan mutualitateen gaia konfederala izan da. Enpresek gertakari komun eta profesionalak (pribatua zein administrazio publikoan) mutualitateetatik gizarte segurantzara pasatzeko dinamikarekin jarraitzen dugu. Bide horretan, esaterako, industriako hainbat hitzarmenetan mutualitateen inguruko klausulak sartu dira. Zerbitzu Publikoen Federazioan, Udaletxe batzuetan aldaketa egitea lortu da (Hernani, Iruñea).

Federazio guztietatik, kezkak, arazoak, salaketak, etengabeak izan dira mutualitateen praktika txarren inguruan (lan jatorria ez onartzea, alta goiztiarrak, talkako tratamenduak).

### 4.2. Emakumeon osasunaren eguna

LABetik emakumeon osasunaren aldeko inizatiba berri bat hartzeko baliatu dugu aurten: emakumeok lanean osasuna galtzen dugula ikusgarri egiteko. Emakumeok egiten ditugun lan askok osasunean kaltea eragiten digutela bistaratu nahi izan dugu. Lan munduan bizi ditugun egoera askok gure osasuna arriskuan jartzen dute, eta arazo honen aurrean, benetako erabakiak hartzeko beharra erakutsi dugu.

## 5. Euskara

Urola Kostako egitasmo pilotua martxan jarri genuen eta lehenengo fruituak ematen ari da. Horrez gain hainbat borroka espezifiko irekita mantentzen dugu, Euskotrenen eta Osakidetzan kasu.

Sindikatuak aztertzeke eta hobetzeko-osatzeko ekarpena egin dugu: *Ekimen Ibiltaria*, *Ekintza Sindikaleko gida*, negoziazio kolektiboaren txostena, hauteskunde sindikalak.

## 6. Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren aldeko borroka

### 6.1. Lanbide Arteko Akordioa

Pasa den kurtsoan EAEn egiturazko Lanbide Arteko Akordioa sortu genuen, bertan indarrean dauden hitzarmenak estatuko eremutik jaso ditzaketen erasoetatik defendatzeko. Aurten, patronal estatal batek akordio hori inpugnatu zuen, bertan behera uzteko asmoarekin eta estatu mailako lan hitzarmenak aplikatu ahal izateko.

Akordioaren defentsan erantzun genuen eta lortu zen inpugnazioa bertan behera uztea, hori bai, berriz aurkezteko mehatxua argi utziz. Inpugnazioaren aferak oraindik eta ageriago utzi du jada ematen ari den estatalizazio prozesuak dakarren arriskua eta mehatxua. Hala, maiatzaren 30erako deitutako lanuzte eta



mobilizazio eguna inflexio puntu bat izan da, baliotsua oso, gaiaren ezagutzan eta sozializazioan sakatzeko (hurrengo puntuan gehiago).

Nafarroan ere abenduan saiatu ginen Lanbide Arteko Akordio bat sortzen, baina ezinezkoa izan zen CCOO eta UGTk (estatuko eremuaren alde egiten dutelako) eta CENek (prekarizatzen eta estatalizatzen jarraitu nahi du) ez zutelako nahi izan. Borroka honekin jarraitu beharra dago, EAEn lortu dugun moduko akordioa lortu arte.

## **6.2. M30, Estalizazioaren kontrako mobilizazio eguna**

6.1. puntuan aipatu bezala, Lanbide Arteko Akordioaren kontrako helegiteak estatalizazioaren inguruan azterketa eta irakurketa sakona egitea ahalbidetu digu. Egoeraren larritasuna eta zabalatasuna ikusita, erantzun orokor bat ematearen beharra azaleratu zuen, eta mobilizazio orokorra bi orduko lanuztearekin deitzea proposatu zen.

Helburu bikoitza zuen: estatalizazioaren kontra langileak mobilizatzea eta lan zentruetan jasaten ari garen erasoaren tamaina eta larritasunaz langileak sentsibilizatzea.

LABeko kidegoak orohar, eta bereziki delegatuek, egundoko lana egin du eta arazoa lehen lerroan kokatzea lortu dugu.

M30a mugarri izan da estatalizazioaren kontrako borrokan pauso berriak emateko. Aukera gehiago izango ditugu aurrerantzean lan zentroetan estatalizazioa=prekarizazioaren kontrako borroka abiatzeko, Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren aldeko borroka indartzeko eta agenda politikoan kokatzeko, lan esparrutik inboluzio orokorraren kontrako ekarpena egiteko, beste sektoreekin batera.

## **6.3. "Alarma Soziala", Macron legearen kontrako dinamika**

Ipar Euskal Herrian ez dago negoziazio eremurik eta gaur egun kasik dena Parisen, Bordelen ala Paben negoziatzen da. Azken erreforma guztiak langileen interesen kontra doazela argi dago. Azkena, "Macron legea", bide beretik doa. Enpresaz enpresako akordioen bitartez gaur egun indarrean diren hitzarmenak ahultzen ahal ditu. Bertako negoziazio eremu baten bidez (CPL) gaur egun existitzen diren hitzarmenak blindatu nahi ditugu. Hori lortuta ere, ez lirateke langile guztiak babestuta geratuko, eta horrexegatik, "Alarma Soziala" dinamika martxan jarri dugu. Elkartasun sisteman berri bat da. Enpresa buru batek ahulago den akordio bat martxan jarri nahi badu, edonork pizten ahal du alarma hori. Protokolo zehatz bat aplikatuz, lehen fase batean negoziazioa sustatuko litzateke, baina enpresaburuak bere asmoei eutsiko balie, sindikatuak beste ekimen batzuk abiatuko litzuke langileen defentsan.

## 6.4. Nafarroako Kontratazio Legea

Arlo publikoan azpikontratatuta lan egiten duten langileei ezarri beharreko lan baldintzak finkatzen dituen Legea sor zedin borroka egin dugu Nafarroan, eta borroka horren ondotik etorri da Nafarroako Kontratazio Legea. Legean jasota dagoenez, kontratazio pleguetan txertatu behar da zein hitzarmen aplikatu behar zaien langileei (lehentasuna Nafarroakoak aplikatzeko), subrogazioa, euskara maila, lan osasuneko neurriak, berdintasuna kontratazioan..., arlo honetan prekarietateari muga zorrotzak ezarri.

EAEEn horren moduko lege bat egiten saiatu ginen pasa den urtean, baina EAJk ageriko oztopoak jarri zituen, eta gaur gaurkoz, prekarietateak egondoko joko zelaia du EAEEn administrazio publikoko azpikontratetan.

## 7. Ondorioak

Kurtso hasieran gure ekintza sindikala berritzeko prozesuan sakontzea erabaki genuen, eraginkorrakoak izateko langileok bizitzen ari garen prekarizazio-pobretze prozesuari aurre egiteko. Ekintza sindikala aldatzen hasi gara, eta horrekin eraginkorrakoak izaten, piztu ditugun borrokek eta lortu ditugun garaipenak erakusten dutenez. Langileen aktibazioa eta borroka egitearen aldeko apustua sustatu dugu, greba erabiliz borroka molde garrantzitsu moduan.

Lan asko dugu egiteko oraindik patronalak eta botere politikoak inposatu nahi diguten eredu prekarioari aurre egiteko. Hala ere, kurtso honek erakutsi digu bide egokia jorratzen ari garela, eta beraz, hurrengo kurtsoan gure ekintza sindikala berritzen eta eraginkortzen jarraituko dugu, aktibazio eta borrokaren alde eginez, hori baita bide bakarra langileen eskubideak defendatzeko eta Lan Harremanetarako Euskal Esparrua bultzatzeko.